

50 ZENBAKIA. 2022

ELKARRIZKETA | **Joan Manuel Fernández.**
Ekonomia Zirkularra eta Industria Jasangarritasuna
taldeko koordinatzaile eta eta ikertzailea

**“Unibertsitatearen eraginkortasuna
handitu nahi dugu, eta haren
ingurumen-aztarna murriztu.”**

VITALDENT

Queremos verte sonreír



Promoción exclusiva Mondragon Unibertsitatea

**15% de descuento
en tu tratamiento
+ limpieza bucal gratis**

ARRASATE-MONDRAGÓN
BEASAIN
BARAKALDO
BASAURI
BERMEO
BILBAO

DURANGO
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
EIBAR
GALDAKAO
GETXO
IRUN

PORTUGALETE
ERRETERIA
SANTURTZI
VITORIA-GASTEIZ

RPS: 255-19

Unibertsitate efiziente baten bila

Mondragon Unibertsitatea erakundearen modu integral baten eragingo duen jasangarritasun plan bat garatzen ari da. Ikerketa hau Joan Manuel Fernández ikerlariak gidatzen du, eta honen helburua unibertsitatearen baliabideen erabileraren efizientzia areagotu eta ingurumen azterna murriztea da. Fernándezekin hitz egin dugu proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko.



AURKIBIDEA

- 03 Editoriala
- 04 Berriak
- 10 Erreportajea
- 13 Iritzia
- 14 Elkarrizketa
- 16 Unibertsitatea & enpresa
- 20 Komunitatea
- 23 Agenda

Sorkuntzarekiko apustu sendoa

Mondragon Unibertsitatearen hazkundeak, iraunkorra eta eraginkorra izateaz gain, sortzailea izan behar du. Horretan urteak daramatza Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Horrela, 2022an Huhezinema film laburren jaialdiaren 15. edizioa egingo da, 4. mailako ikasleek antolatuta. Era berean, Euspot-ek, kolaboratzaile sare zabal batekin batera antolatutako euskarazko spot lehiaketak, 11. edizioa ospatuko du.

Bi lehiaketek ikasgelan landutakoa praktikan jartzea eskaintzen diete ikasleei, sormena bereziki landuz.



muniversitas aldizkariaren 50. zenbakia OSOA ikus dezakezu gure webgunean.



muniversitas aldizkariaren 50. zenbakia EUSKARAZ ikus dezakezu gure webgunean.



Puedes acceder a la revista muniversitas número 50 en CASTELLANO en nuestra web.

JASANGARRITASUNA AURRERA EGITEKO

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Garapen Jasangarrirako Helburuen zerrenda bat argitaratu zuen 2015ean, 2030 Agendaren baitan, 17 helburu zehazki. Mondragon Unibertsitateak bere egiten ditu helburu horiek, eta erakundearen hazkunde iraunkorra bermatzeko, Garapen Jasangarrirako Helburuak sartu ditu 2021-2024 Plan Estrategikoan. Garapen Jasangarrirako Helburuek izaera desberdineko helburuak biltzen dituzte, gizarte-eremutik ekologikora, besteak beste, baita akademikotik ere. Horregatik, hezkuntza antolaketa kooperatibo eta euskaldunearn sortutako erakundeak izanik,

Mondragon Unibertsitateak hasieratik ditu barneratuak helburu horietako zenbait. Zehazki, horietako batzuk jasota daude 2001-2004 Plan Estrategikoan, unibertsitatearen lehenengoan, eta honen oinordekoa da 2021-2024 Plan Estrategikoa. Esate baterako, Kalitate Hezkuntza, Genero berdintasuna, Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa, eta Bakea, Justizia eta Erakunde Solidoak bezala izendatutako helburuak oso errotuta daude unibertsitatearen funtsean.

Horretaz gain, garai berri honetarako fakultate bakoitzak helburu zehatzak ezarri ditu, eta horren arabera jarri ditu abian ekintzak. Hori guztia GJHei buruzko unibertsitatearen diagnostiko komun batetik abiatuta, dauden jardunbide egokiak homogeneizatu nahi baitira, erakunde osoan eragina izan dezaten.

Mondragon Unibertsitatea hazten dabil. Eraikin berriak inauguratu dira, titulazio berriak ezarri dira, eta ikasleen eta profesionalen kopuruak gora egin du. Hazkunde hori epe luzera iraunkorra izan dadin, erakundeak GJHak maila globalean ezartzearen aldeko apustua egiten du. Izan ere, aurrera egitea garrantzitsua da, baina modu iraunkorrean egitea beharrezkoa da.

*Mondragon
Unibertsitatea hazten
dabil.
Hazkunde hori epe
luzera iraunkorra izan
dadin, erakundeak
GJHak maila globalean
ezartzearen aldeko
apustua egiten du.*



Ikus-entzunezko Komunikazio graduko 4. mailako ikasleek antolatzen dute Huhezinema Euskal Film Laburren jaialdia.

15 urte ikus-entzunezkoen sormena sustatzen

SORMENA ETA BERRIKUNTZA DIRA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN EREDU PEDAGOGIKOAREN ARDATZ GARRANTZITSUAK. IKASLEEK EZ DITUZTE KONPETENTZIA HORIEK BAKARRIK CURRICULUM AKADEMIKOAN JORRATZEN, MODU PARALELOAN, UNIBERTSITATEAK ANTOLATZEN DITU ZENBAIT EKINTZA ETA LEHIAKETA.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Oraingo ikasturtean, 15 urte beteko ditu Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 4. mailako ikasleek antolatzen duten Huhezinema Euskal Film Laburren jaialdiak. Euspot Euskarazko Spot Lehiaketak, bestalde, 11. edizioa jarri du abian ikasturte honetan. Egitasmo hauek helburu nagusi bat dute: sormena landu ikasleen artean, kasu honetan, Ikus-entzunezkoen adarreko ikasleen artean.

Talde lanean jaialdia antolatzea da praktika ardatz duen lan-sekuentzia horren helburua. Taldean lanean aritzeak ahalbidetzen du graduari ikasitakoak praktikan jartzea, eta aldi berean, mundu profesionalarekin harremanak sustatzea. Oraingo edizioa egingo da martxoaren 30etik apirilak 1era, eta musika izango du ardatz. Urtero bezala, proiektzioak Aretxabaletako Arkupe Kultur-Etxean egingo dira.

Elkarlanaren balioa

Euspot Euskarazko Spot Lehiaketa, bestalde, beste erakunde batzuekin elkarlanean antolatzen den egitasmoa da. Aurten aukeratutako gaia izan da kooperatibetan lan egitearen abantailak. Izan ere, oraingo ediziooko babesle nagusia Euskadiko Kooperatiben Goren-kontseilua da. Sari banaketa ekitaldia ekainaren 2an egingo da, hau ere Aretxabaletan, komunikazio ikasketak eskaintzen diren herrian.



Parte-hartze eta sari handiak



Estatutik eta Euskal Herri osotik etorritako dozenaka lan jasotzen dira lehiaketa bi hauek, eta bakoitza bere esparruan -film laburrak eta publizitatea-, ezinbesteko hitzorduak bilakatu dira ikus-entzunezkoen sortzaileen artean. Euspot lehiaketak 87 spot jaso zituen iazko edizioan; Huhezinemak, ostera, 82 film labur. Ikasturte honetako edizioan, 6.000 eurotik gora banatuko dituzte saritan lehiaketa hauek. Mondragon Unibertsitateko ikasleek, gainera, sari propioa izaten dute.

Espazio berri baterako lanak martxan

GAUTXORI EREMUAREN URBANIZAZIO LANAK AURRERA DIHARDUTE, 2023KO IRAILERAKO BUKATZEKO AURREIKUSPENAREKIN. BERTAN KOKATUKO DA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN HIREKIN PROIEKTUA, EKINTZAIETZA TEKNOLOGIKOAREN BITARTEZ INDUSTRIAREN EMISIOAK MURRIZTERA BIDERATUTAKO DA PROIEKTU BERRIA.



Gautxori eremuko lanak. Argazkia: Goiena

Goi Eskola Politeknikoa | Gautxori eremuaren urbanizazioa eta eraikin berriaren lanak erritmo onean ari dira garatzen, eta unibertsitateko eremu berria 2023rako prest egotea aurreikusten da. Ekintzaitza bultzatzeko askotariko espazioak izango ditu bertan kokatuko den eraikin nagusiak, laborategi industrial, lokal sozial edo lanerako espazioak jasoko dituena. Proiektua aurrera eramateko 9.500.000 euroko aurrekontua onartu zen. Batetik, eraikin berria egiteko 6.000.000 euro erabiliko dira, eta 3.500.000 euro urbanizaziorako.

Hirekin proiektuaren egoitza

26.221 metro karratuko esparru berriaren garatuko da Mondragon Unibertsitateak sustatu eta D2030 egitasmoarekin bat egiten duen *Hirekin* proiektua. Proiektuaren koordinatzaile Roberto Uribeetxebarriaren hitzetan “*Hirekin* lankidetzaren, ikerketaren eta

ekintzaitzaren bitartez emisioak murriztera eta ingurumen helburuak betetzeko irtenbideak bilatzera bideratuko da”. Zentzu honetan, eskualde-industria eraldatzea da asmoa, unibertsitateak “trantsizio industrial iraunkor eta justuaren mesedetan lan egiteko duen konpromisoarekin bat eginez”. Industriaren beharretara egokitutako tailer espazio bat eta ekipamenduetarako sarbidea eskaintzeaz gain ideiak gauzatzeko espazio berriak ere eskainiko ditu. Mondragon Unibertsitatearen *Hirekin* proiektuarekin lortu nahi duen helburua ekintzaitza teknologiko eta industrial izanik, hau sustatzeko baliabide egokiak eskainiko dira bertan. Horretarako, agente desberdinen artean (fakultate guztietako ikasle, ikerlari eta enpresak) kultura ekintzailea, ekintzaile komunitateak eta lankidetzaz bultzatzea izango da erronka nagusia.

Mondragon Unibertsitateko eremu berria 2023rako prest egotea aurreikusten da.

Takoi trukagarrien marka berria

OINEN EROSOTASUNA BERMATU ETA ZAINTZEKO KONPONBIDE GAZTE ETA IRAULTZAILEA GARATU DA, BENETAKO ESPERIENTZIAK ARDATZ IZANIK.



Yaiza Barandiaran, Aroa Ugarte, Clara Abades, Yago de la Rica eta Jon Ander Merodio taldekideak.

Enpresagintza Fakultatea | LEINNeko bost ekintzaile *MyWay Heels* proiektua martxan jartzen ari dira, takoidun oinetakoa lau bihurtzeko aukera eskaintzen duen marka berria. Sistema oso sinplea da: atzeko pieza txiki bat biratu, takokia atera eta beste pieza batekin trukatu eta lotu egiten da. Yaiza Barandiaranek (CEO eta Content Creator), Aroa Ugartek (Harreman Publikoak), Clara Abadesek (Estrategia Zuzendaria), Yago de la Ricak (Produktu Zuzendaria) eta Jon Ander Merodiok (Hedapen Zuzendaria) osatzen duten taldeak prototipatu egin ditu bere lehen produktuak, eta PLArekin (artoaren material naturala) eta pneumatiko birziklatuarekin fabrikatuko dira. Sustatzaileek negozio-idea berritzaile bat garatu dutela diote, eta beraien burua finantzatu nahi dute, kontsumo iraunkorraren alde eginez. Talde eragileko kide batek izandako orkatilaren bihurtua izan zen ideia piztu zuen gertakaria, lesioarekin modu egokian ibili ahal izateko irtenbide bila zabilela. Ideia garatu ondoren, crowdfunding kanpaina bati eta markak diseinu propioa duten poltsak saltzeari esker, prototipatze-prozesua finantzatu dute. Sortze eta prototipo-prozesuan zehar, erabiltzailearen osasuna eta erosotasuna izan dituzte helburu, eta horretarako, hainbat oinaztura eta larritasun azterketa egin dituzte profesionalen laguntzarekin. Horrez gain, merkatu azterketa bat ere egin zuten, erabiltzeko erraza eta intuitiboa den mekanismo bat diseinatzeko.

Literatura topaketak

JOSEBA SARRIONANDIA IDAZLEA HEZKUNTZA GRADUKO IKASLEEKIN EGON DA SOLASEAN ESFORIATZAKO CAMPUSEAN. ASPALDIKOA ETA ESTUA DA UNIBERTSITATEAREN ETA IDAZLE IURRETARRAREN ARTEKO HARREMANA, EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA ADITU TITULUAN, EKT-N, ERE SARRITAN HARTU IZAN DU PARTE IDAZLEAK.



Joseba Sarrionandia Eskoriatzako campusean.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Joseba Sarrionandia idazleak Literatura musikatua jardunaldiazuzendutu Mondragon Unibertsitateako

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Saioak egin ziren Eskoriatzako campusean, otsailaren 24tik 28ra, Literatur Topaketaren barruan.

Hezkuntzako laugarren mailako ikasle guztiek hartu zuten parte txandaka antolatutako bi orduko saio praktikoetan.

Euskal tradiziokoak bilakatu diren hainbat abesti zahar eta berri aztertu zituen idazle iurretarrak eta Euskadi Sariaren irabazleak; horietako batzuk, gainera, Sarrionandiaren beraren testuekin egindako kantuak izan ziren. Solasaldian landu zuten, besteak beste, nola sortu ziren hitz horiek guztiak eta, oro har, nola bihurtzen den kanta literatura testu bat. Gainera, ikasleek aukera izan zuten jorrazteko kantuek tratatzen dituzten zenbat gai.

Kulturgintzaren transmisioa

Hezkuntza graduko ikasleekin ez ezik, aurrerago, aditu tituluko ikasleekin ere egongo da idazle erreferentea. Izan ere,

EKTren, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulua, 9. edizioan ere esku hartuko dut Sarrionandiak. Aditu hori 2022ko irailaren 24an hasiko da, eta ohi bezala, euskal kulturgintzaren punta-puntako adituk eta arituk hartuko dute parte, tartean, Joseba Sarrionandia bera.

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulua, 9. edizioan ere esku hartuko dut Sarrionandiak. Aditu hori 2022ko irailaren 24an hasiko da.



Goiru egoitzako sarrera.

ISO14001: 2015 ziurtagiria Goiru egoitzak

Goi Eskola Politeknikoa | Goi Eskola Politeknikoak ingurumen-kudeaketari buruzko ISO 14001:2015 ziurtagiria lortu du Arrasateko Campuseko Goiru egoitzarentzat.

12 urtez Ekoscan ziurtagiriarekin ingurumen-portaera hobetzeko lanean aritu ondoren, Goi Eskola Politeknikoak ISO 14001:2015 ziurtagiria lortu du, Arrasateko campuseko Goiru egoitzan. Arau honek ingurumen-estrategiak diseinatzen dituzten erakundeek lana eta konpromisoa aitortzen ditu.

Ingurumen-kudeaketarekiko konpromisoa

Ziurtagiriaren lorpena 2019an hasi zen proiektu baten emaitza da, eta Goi Eskola Politeknikoko ingurumentaldearen parte-hartzea etakonpromisoa izan zituen.

Nazioartean aitortutako ziurtagiri horrekin, ingurumen-kudeaketarekiko konpromisoa indartzen du, erakundearen jardueraren bakoitzaren ingurumen-alderdien sistematizazioa bermatuz, jarduerak ingurumenean duen eragina murriztuz eta jardueraren eraginkortasuna etengabe hobetzeko borondatea onartuz.

Gizarte ekintzailtza Afrika eta Euskadin

EUSKADIKO, KENYAKO ETA SENEGALGO BEDERATZI EKINTZAILE TALDEK AFRIKA ETA EUSKADIN GARATZEKO OSASUN ESKUBIDEARI BURUZKO PROIEKTUAK DEFENDATUKO DITUZTE, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ETA MONDRAGON TEAM ACADEMYK BULTZATUTAKO PROGRAMA BATEN BAITAN

Enpresagintza Fakultatea | Kultura aniztasuna eta elkar sorkuntza oinarri izanik, Euskal Herriko eta Afrikako gazteen talde multikulturalen bitartez Afrikan eta Euskadin gizarte ekintzailtzarako aukerak aztertzea.

Hori izan zen duela lau urte European martxan jarritako programa aitzindari baten abiapuntua, Afrika Basque Challenge izena jaso zuena. Mondragon Unibertsitateak bultzatutako programa bat dugu hau, Mondragon Team Academy ekintzailtza sareak kudeatu eta Mundukide eta LKSren babesa duena, besteak beste. Egitasmoak Euskadin eta Afrikan eragin positiboa izango duten proiektuak martxan jartzeko helburuarekin sortu zen, horretarako ekintzaileen arteko elkar sorkuntza bultzatuz. Honen baitan, orain arte hamar bat enpresa sortu dira, gehienak Afrikan. Aurten programaren hirugarren edizioa dago martxan, osasunera bideratutako proiektuetan zentratzen dena, Anesvad Fundazioa, Diversity 4 Equality eta Zuhura Africa-ren kolaborazioarekin.

Talde aniztasuna

Euskal Herriko, Kenyako eta Senegalgo 38 gaztek

osatutako bederatzi talde multikultural elkartu ziren Bilboko BBK Kuna jaialdian, azken lau hilabeteetan landutakoa aurkezteko. Osasunerako eskubidearen barruan, ur garbia, osasun mentala, nutrizioa, genero berdintasuna, haurtzarora edo dibertsitate funtzionalean fokoa jartzen duten proiektuak garatzea izan dute helburu

Africa Basque Challenge 2021 -2022



Africa Basque Challenge ekitaldiaren irudia.

Motion. Autos, Art, Architecture

Goi Eskola Politeknikoa | Industria Diseinu Inge-niaritzako 4. mailako ikasle batek eta irakasle talde batek elkarlanean garatutako proiektua da Guggenheim Museoan ikusgai *Motion. Autos, Art, Architecture* erakusketaren testuinguruan. Norman Fosterren erakusketak mugikortasuna izango du ardatz eta Mondragon Unibertsitateko proiektua etorkizuneko trenean oinarrituko da. Izan ere, CAF enpresarekin elkarlanean garatutako proiektua aurkeztu dio unibertsitateak arkitektura fundazi-oari, eta bere onespina jaso du.

Diseinuaren garrantzia nabarmenduz

Guggenheim museoak Norman Foster Foundati-on-ekin elkarlanean antolatutako erakusketa da. Automobilak arte eta diseinuaren historian izan duen garrantzia erakusteko. Horrez gain, erakuske-tako areto nagusietako batek etorkizuneko mugikortasunaren gaia landuko du mundu osoko 16 diseinu eta ingeniari-tza unibertsitatek garatutako proiektuen bitartez, horien artean Mondragon Unibertsitatea.



© FMGB, Guggenheim Bilbao Museoa, 2022. Argazkia: Erika Ede

“Host” saio berri bat

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | “Host” Basque Culinary Centerrek antolatutako topagune bat da, aretoko jardunbide eta joeraberrikerakusteko, bezeroarentzako zerbitzu eta arretan eboluzionatu nahi duten pertsona guztiei zuzendua. Gastronomía punta-puntako sektorea izanik, “Host”ek profesional handiek garatutako sormena eta berrikuntza uztartu nahi ditu, betiere aretoak eskaintzen duen harreraren eta arretaren eskutik.

Ekimenaren helburua hausnarketatik abiatuta eraldaketa mugimendu bat sortzea da, balio eta baliabide berriak partekatuz, zerbitzu arloaren eta jankideentzako arretaren sektorearen irudi berri bat finkatzeko.

Profesionalei zuzendutako eskaintza

2021eko zazpigarren edizioa izan zen, eta haren helburua enpresabaten barruan talentua zaintzearen garrantzia transmititzea eta enpresa-estrategiaren eta langileen ikuspegi profesionalaren arteko topaguneak sortzea.

Azken edizio hau laugarri-multzotan antolatu zen: ingurunea eta estrategia, enpresarekiko konpromisoa, enpresa garapena eta berrikuntza. Errealitate horren ikuspegi osoagoa emateko, hainbat profiletako hizlarien panela izan zen ekitaldian: besteak beste, Begoña Echaburu (MIK), Aitor Arregi (Elkano), Silvia García (Ritz) eta Esther Merinok (Alchemist) osatua.



“Host” online eta aurrez aurre egin zen.

Nazioarteko erreferente bat

MTA-MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN EKINTZAILITZA BERRITZAILE EREDUA DUBAIKO NAZIOARTEKO ERAKUSKETAN AURKEZTU ZEN, ESPAINIAKO GOI KOMISIONATUAREN GONBIDAPENA



Aitor Lizartza Mondragon Team Academyko koordinatzaileak bere kasua azaldu du Dubain.

Enpresagintza Fakultatea Mondragon Team Academy - Mondragon Unibertsitatearen ekintzailitza-ereduak mugak gainditu ditu, eta unibertsitatearen arteko nazioarteko espordazioaren adibide bereiztua bihurtu da, Mexikon, Txinan, Hego Korean eta Alemanian ezarritako ekintzailitza-laborategiei esker. Espainiako Goi Komisionatuak Dubaiko Erakusketan Unibertsitatearen antolatutako ekitaldian parte hartzeak jauzi kualitatiboa suposatu dio Mondragon Unibertsitateari, eta arlo honetan duen lidergoa sendotu du «Learning by doing» (eginez ikasi) ekintzailitza-ereduaren arrakasta publiko orokorrari erakutsiz. Unibertsitateak bere prestakuntza-eredua azaldu zuen Espainiako Nazio Ekintzailearen Goi Bileran (Spain Entrepreneurial Nation Summit), bi eguneko Dubaiko Expoaren Espainiako Pabiloian.

Ekosistema berri bat azaltzen

Aitor Lizartza Martín, Mondragon Unibertsitateko nazioarteko ekintzailitza-sarearen sortzaileetako bat, eta Mondragon Team Academy eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko MTA ekintzailitza-koordinatzailea izan zen ekintzailitza-eredua azaltzeko arduraduna. Gainera, unibertsitateko ekintzailitza-ekosisteman, team-coach-en rolean (taldeetako entrenatzaileei bide eman dieten irakasle ohiak), ikasleen artean (ekintzaileak) talentu ekintzailea bultzatzeko eta prestakuntza-eredu horri aplikatutako berrikuntzan sakondu zuen bere interbentzioan.



El área de emprendimiento de Basque Culinary Center consolida su acción.

Culinary Action! European Enterprise Award 2021

CULINARY ACTION! BASQUE CULINARY CENTER-EKO EKINTZAILITZA ARLOA IZAERA EKINTZAILEA SUSTATZEKO KATEGORIAN SARITUA IZAN DA EUROPEAN ENTERPRISE PROMOTION AWARDS (ENPRESA SUSTATZEKO EUROPAKO SARIAK) SARIETAKO 2021EKO EDIZIOAN

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Joan den azaroan Eslovenian antolatutako gala batean, *Culinary Action!* European Enterprise Award 2021 sariaren irabazlea izendatua izan zen. Basque Culinary Center-eko ekintzailitza arloari izaera ekintzailea sustatzeko saria eman zioten. Europako Batzordeak ehunka proiekturen artean aukeratu zuen ekimena Europako izaera ekintzailea sustatzeko onena bezala, Basque Culinary Center nazioartean Euskadiko elementu erakargarrienetako bat bezala aldarrikatuz.

Epaimahaiak *Culinary Action!* nabarmendu nahi izan zuen, gastronomiarako negozio-eredu berriak sortzeko egindako ekarpena, prestakuntza eta sektore gastronomikoaren profesionalizazioarako ekimenaren babesa azpimarratuz. *Culinary Action!* Estatuko gastronomia-ekintzailitza bizkortzeko programa izatetik kontinenteko hainbat ekosistematan (Madril, Frantzia eta Tel Aviv) Europako erreferentziazko eragile izatera igaro da etengabeko ekintzak gauzatuz. Asier Aleak, Garapen Globaleko zuzendariak, saria jasotzean nabarmendu zuenez, “zazpi urtetan *startup* eta ekintzaile gastronomikoekin batera egindako lanaren eta arlo horren bilakaeraren errekonozimendua da”. *Culinary Action!* eta Basque Culinary Center erakundeek

nazioarteko proiektzioaren bultzada kontuan izanik, Estatu eta Europa mailan ekintzailitza sustatzeko ekosistema emankorra da.

Ospe handiko errekonozimendua

Culinary Action!, hasieratik Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Industriako Sailburuordetzaren eta HAZIren babesa izan duena, kategoria horretan lehiatu zen (guztira sei kategoria dituzte sariak). Eta beste bi finalistekin izan zen lehian: Esloveniako Sormen Zentroa, herrialdeko sektore kultural eta sortzaileei laguntza eskaintzen dien leihatila bakarra; eta Frantziako Gazteriaren Sentsibilizazio Astearen 100.000 *entrepreneurs* proiektua.

Gainera, epaimahaiak nabarmendu zuen *Building a Green Gastronomic City* bezalako beste proiektu batzuen bidez, Basque Culinary Center laguntzen dabilela elikagaien jasangarritasunaren erronkei aurre egiteko ekonomia zirkularreko irtenbideak aurkitzen eta ingurune bat sortzen. Ingurune horretan adituek, hornitzaileek, ekoizleek, sukaldariek eta kontsumitzaileek tokiko gastronomia suspertzeko eta herri-tarrak jasangarritasunaren inguruan hezteko irtenbideak elkarrekin sortu ahal izango dituzte.

Diploma banaketa berezia

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADU DUALEKO, UNIBERTSITATE-MASTERRETAKO ETA PROFESIONALENTZAKO PROGRAMETAKO 18/19 ETA 19/20 PROMOZIOETAKO 320 DIPLOMADUNI EMAN DIZKIE DIPLOMAK



Pandemia dela eta diploma jaso ezin izan duten egresatuak elkartu dira.

Enpresagintza Fakultatea | Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak otsailaren 18an antolatu zuen 2018/2019 eta 2019/2020 promozioetako graduako, unibertsitate-

masterretako eta coachingaren eta lidergoaren arloko profesionalentzako prestakuntzako 320 ikaslerentzako diploma banaketa. Izan ere, pandemia dela eta, ikasle horiek aurtengo arte itxaron

behar izan dute beraien graduazio-ekitaldian diploma ofiziala jaso ahal izateko. Ekitaldia Donostiako Kursaal jauregian antolatu zen. Zehazki, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduako (myGADE) modalitate DUALEko 18/19 eta 19/20 promozioetako ikasleek jaso dituzte diplomak: Oñatiko campuseko 96 ikasleek eta Bidasoako campuseko 64k. Gainera, promozio eta campus bakoitzeko espediente akademiko onenak nabarmendu dira.

Diziplina ezberdinei aitortza

Horiez gain, honako hauek ere jaso dute diploma graduazio-ekitaldian: Kontabilitate eta Finantza Zuzendaritzako Unibertsitate Masterreko ikasleek (29), Pertsonen Talentuaren Kudeaketa Estrategikoko Masterrekoek (23), Erakundeen Nazioartekotzeari buruzko Masterrekoek (16) eta Marketing Digitaleko Masterrekoek (29), ikasketak 2019ko promozioan nahiz 2020koan amaitu dituztenek; eta Enpresagintza Fakultateak eskaintzen dituen Lidergo eta Coachingeko profesionalentzako programak amaitu dituztenek (63).

Ekitaldiaren hizlarien artean, besteak beste, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko dekanok Lander Belokik eman zion hasiera ekitaldiari eta Laboral Kutxako lehendakariak, Txomin Garciak, Mondragoneko esperientzia kooperatiboari lotutako bere bizitza profesionalari buruzko hitzaldia eman zien diplomadunei, mezu motibagarri bat zabaltzeko helburuarekin. Ekitaldia Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxak itxi zuen.

Unai Ibarretxeren ikerketa saritua izan da



Unai Ibarretxe. Argazkia: TUlankide

Goi Eskola Politeknikoa | Unai Ibarretxe doktoregaiak Bilbon izandako V. Material, Zientzia eta Teknologia Kongresuaren lan zientifiko onenaren saria jaso zuen. Goi Eskola Politeknikoko Materialak Eraldatzeko Prozesu Aurreratuen ikerketa taldeak eta Fagor Arrasate kooperatibak duten lankidetzaren barruan kokatzen da Ibarretxeren lana, eta bere tesiak erresistentzia altuko aluminio aleazioei zuzendutako berotako estanzazio prozesuaren garapenean du oinarria. Tesi hau Fagor eta Eusko Jaurlaritzako Bikaintek programaren bitartez finantzatuta dago, eta bertan ikertzen dena aluminio estanzazio prozesuak automozio sektorean inplementatzeak izan ditzakeen abantailak dira, besteak beste kotxeen portaera dinamikoa hobetu

eta erregaien kontsumoa eta gasen emisioa gutxituz. Ikerketaren proba fasea Mercedes Benz E klaseko ibilgailu baten kolpe-leungailuetan egin zen, eta segurtasun-baldintzak mantentzen zirela egiaztatu zen, piezaren pisua %40 murriztea lortuz.

Euskal Herriko erakustokian saridun

Material, Zientzia eta Teknologia Kongresua Euskal Herrian erreferente bat da ekoizpen zientifiko eta teknologia berrienetan. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko zentro ezberdinek hartzen dute parte. Unai Ibarretxek bere ikerketan lortutako publiko guzti honen aurrean aurkezteko aukera izan zuen.

Aurrera egiteko oinarri sendoak

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK HAZKUNDE GARRANTZITSUA BIZI IZAN DU AZKEN URTEOTAN IKASLE, ESKAINTZA AKADEMIKO EDO INSTALAZIOEI ERREPARATUZ. HAZKUNDE HAU JASANGARRIA IZAN DADIN, ETA EPE LUZERAKO FUNTZIONALA, GARAPEN JASANAGARRIRAKO HELBURUAK JASO DITU ERAKUNDEAREN 2021-2024RAKO PLAN ESTRATEGIKOAN.

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 2015ean Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda argitaratu zuen, 15 urteko epealdian pertsona eta planetaren alde aurrera eramateko ekintza plan bat. Honen baitan aurkitzen dira Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH), 2030 Agendako helburuei lotuta dauden 17 helburu konkretu.

Mondragon Unibertsitateak bere egin ditu helburu hauek eta 2021-2024rako Plan Estrategikoan jasotako nahiz eta praktikan unibertsitateak martxan jarritako 2000-2004ko lehen Plan Estrategikoan jasotako ideien herentzia izan. Mondragon Unibertsitatea hezkuntza erakunde kooperatibo eta euskalduna izanik, sorkuntzatik ditu barneratuak 2015etik aurrera Garapen Jasangarrirako helburu bezala definitutako hainbat, horien baitan egituratu ez diren arren. Kalitate oneko hezkuntza (GJH4); Genero berdintasuna (GJH5); Lan duina eta hazkunde ekonomikoa (GJH8) eta

Bakea, justizia eta instituzio sendoak (GJH16) besteak beste oso errotuta daude unibertsitatearen izanean.

Horrela, unibertsitatearen izanarekin hertsiki lotua dagoen Kalitatezko Hezkuntzaren helburua betetzeko asmoarekin titulu ofizialen eskaintza fakultate guztietan hazteaz gain, hezkuntza ereduaren garapen eta hobekuntzarako neurriak etengabe lantzen eta gauzatzen dihardu unibertsitateak, hezkuntza-berrikuntza bere erronka estrategiko nagusienetarikoa bat izanik. Hezkuntza eredu parekide bat oinarri, gizon eta emakumeek aukera berak dituzte Mondragon Unibertsitateko ikasketa eskaintza osoan. Horrez gain, enpresamundutik gertu kokatzen da erakundeak, DUAL gradu eskaintza urtez urte igoz edo transferentziara bideratutako ikerketa bultzatuz.

Gainera, Fakultate bakoitzak bere helburu eta ekintzak jarri izan ditu martxan, eta hauek jasotzeko 2020-2021 ikasturtean unibertsitateak

diagnostiko orokor bat egin zuen. GJHei dagokionez erakundearen argazki orokor bat izan eta fakultateen arteko praktika onak partekatu eta sinergiak aprobetxatuz helburu eta ekimen berriak garatu ahal izateko.

Unibertsitatearen estrategiarekin bat

2021-2024 Plan Estrategikoaren baitan, Mondragon Unibertsitateak Garapen Jasangarrirako Helburuetan sakontzeko hautua hartu du, eta erakundearekin irmoki lotzen diren horiez gain, beste zenbaitekin lotutakoak ere lantzen hasita dago. Besteak beste, Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea, Ekoizpen eta kontsumo arduratsua, Desberdintasunen murrizketa, eta Osasuna eta ongizatea. Helburu hauei aurre egiteko unibertsitate mailako egitasmoak jarri ditu martxan unibertsitateak. Hauen artean, besteak beste, Ekitatea Bultzatzen eta Bekabide egitasmoak nabarmendu daitezke, egoera zaurgarrian dauden familia eta ikasleei laguntzeko bideratutakoak.

Energia irisgarria eta ez kutsagarriaren testuinguruan, datozen hiru urteetan zehar fakultate guztietan garatuko den “MUCS-campus zirkular eta jasangarria” proiektua nabarmendu daiteke.

Osasuna eta ongizateari lotuta ere fakultate guztietan Kirol eta Kultura Zerbitzuarekin elkarlana egunerokoa eta jarraitua da eta kirol ekintzez gain osasunean eragiteko beste hainbat ekimen ere jarri dira martxan (mind-



Energia irisgarria eta ez kutsagarriaren testuinguruan, datozen hiru urteetan zehar fakultate guztietan garatuko den “MUCS-campus zirkular eta jasangarria” proiektua nabarmendu daiteke.



Goi Eskola Politeknikoa
Energiaren kontsumoa murrizteko ekintzak eta berriztagarrien aldeko apustua egiten ari da.



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Kotxe partekatuak bultzatzeko parking espezifikoak ahalbidetu dituzte.



Enpresagintza Fakultatea
Instalazioetatik hasi da eraldaketa. Kanilak, komunontziak eta argiztapen berezia instalatu dute.



Basque Culinary Center
Bertako jendeari eskaintzen zaizkion kotxe eta taxiak hibridoak dira.



fulness kurtsok, erretzeari uzteko baliabideak, etab.). “Unibertsitate Osasuntsua” egitasmoa ere GHJ honen adierazgarri da.

Unibertsitate mailako proiektuez gain, fakultate bakoitzak garapen plan propio bat diseinatzeari ekin dio. Horretarako, fakultate bakoitzean Garapen Jasangarrirako lan talde ezberdinak eratu dira, diagnostiko fasearen ondoren akzio plan bat garatu eta kontuan izan beharreko indikatzaileak definituz. Zentzu honetan, fakultate bakoitzean Garapen Jasangarrirako Helburu bakoitzari egokituz ekintza ezberdinak martxan jarri dira, bakoitza dagokion errealitateari lotua.



Mugikortasun plan berdeak bultzatzen dira ikasle eta langileei distantzia laburrak egiteko bizikletak edo hiru pertsona baino gehiagok partekatzen duten kotxeentzako parking espezifikoak eskainiz.

Ingurumenarekiko ardura

Garapen Jasangarrirako Helburuen artean lehen aipaturiko Energia irisgarria eta ez kutsagarriaz gain, badira beste GJH batzuk ingurumenaren babesarekin lotuta daudenak eta fakultateetan lantzen ari direnak. Horren adibide dira Ur garbia eta saneamendua, Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak eta Klimaren aldeko ekintzak, besteak beste.

Goi Eskola Politeknikoan, adibidez, energiaren kontsumoaren diagnostiko bat egin da, eta diagnostiko honetatik eratorritako akzio ezberdinak jarri dira martxan energia kontsumoa murrizteko. Horrez gain, energia berriztagarrien alde-

ko apustua nabarmena da, esaterako eguzki panelen txertatzearekin.

Enpresagintza Fakultatean ere instalazioetatik hasi da eraldaketa, bertan kontsumoa murrizteko kanalak, komun-ontziak eta argiztapen berezia instalatuz, kontratatutako energia berriztagarria izateaz gain. Gainera, Oñatin Cegasaren Kossorkuntza Elektrikoaren Planarekin bat egiten da, campusaren berogailu sistema ur berarekin hornituz gas kostuaren %50ari dagokion aurrezki energetikoa izanik, prozesuaren orokortasunean energia kontsumoa modu esanguratsuan murriztuz. Sortzen diren hondakinen trataeran ere sakondu da fakultate guztietan

birziklatze selektiboa bultzatuz eta hondakinen bigarren erabilpena sustatuz.

Horrez gain, kontsumo energetikoa murrizte aldera ere mugikortasun plan berdeak bultzatzen dira, besteak beste ikasle eta langileei distantzia laburrak egiteko bizikletak edo hiru pertsona baino gehiagok partekatzen duten kotxeentzako parking espezifikoko eskainiz.

Mugikortasun jasangarriaren bidean ere ari da lanean Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, bertan ere kotxe partekatuak bultzatzeko parking espezifikoko ahalbidetu baitituzte eta, horrez gain, eraikin berriak ere modu jasangarrian eraiki dira.

Era berean, eta Ekoizpen eta kontsumo arduratsuaren testuinguruan, esaterako, instalatzen diren inpresora berri guztiak dokumentu bat inprimitzerakoan txartel bidez aktibatzea beharrezkoak dira, modu honetan inpresio erratuak ekidin eta paper kontsumoa nabarmen murriztuz. Instalazio berri honen emaitzak oso positiboak dira, eta unibertsitatea eraikin guztietan ari da inplementatzen. Digitalizazioari ematen ari zaion bultzadak ere eragin zuzena dauka paperaren kontsumoaren murrizketan.

Eraldaketa berdea Basque Culinary Centerren ere ematen ari da, bertako jendeari eskaintzen zaizkion kotxe eta taxiak hibridoak baitira. Gainera, egunerokoa erabiltzen diren gailuen kontsumoa murrizteko berrikuntza eta instalakuntzarako eta energia berdearen erosketarako planak martxan jarri dira.

Mondragon Unibertsitateak erakunde berdea izan nahi du etorkizunera begira, eta joera hau merchandising-era ere eramaten ari da, plastikoa saihesteko kristalezko ur botilak emanez bisita berriei, edota edari beroak edateko banbuz eginiko ontzi berrerabilgarriak banatuz, eta oparietarako material birziklatuarekin egindako produktuak erosiz, gutxi batzuk aipatzearen.

Ongizatea negoziatzen da

Garapen Jasangarriko Helburuen beste zutabe garrantzitsu bat pertsonen ongizatea da, eta Mondragon Unibertsitateak guztiz barneratua du hori, bikaintasunera bidean beraien egunerokoa bertan igarotzen duten pertsona guztiek gustura egon behar baitute. Helburu horri erantzunez fakultate bakoitzak neurri espezifikokoak garatu ditu. Esate baterako, vending makineta produktu osasuntsuak txertatu dira edo jatetxeetan aukera barazkijaleak eskaini. Zentzu honetan Basque Culinary Centerrek elikadura osasuntsuan eragiteko gida ezberdinak ere garatu ditu, nazioarteko agenteekin elkarlanean. Fakultate honek, gainera,



Garapen Jasangarriko Helburuen beste zutabe garrantzitsu bat pertsonen ongizatea da, eta Mondragon Unibertsitateak guztiz barneratua du hau”.

Goserik Ez GHian eragitea du helburu eta hori bideratutako ekimenen artean, Caritasekin lan-

kidetzan eskaintako 1.000 menuak aipatu daitezke.

Genero Berdintasunaren GHlari erreparatuz, Berdintasun Planak garatu eta Batzordeak sortu dira fakultate guztietan. Era berean ikasle eta langileen artean parekidetasuna suspertzen da, eta honen adibide da emakumeak ZTIM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) arloetara erakartzeko martxan jarritako ekimen ezberdinak.

Bukatzeo, nabarmendu behar da baita Hiri eta Komunitate Jasangarrien GHlaren testuinguruan euskararen erabilera sustatzeko fakultate guztiek modu iraunkorrean eta bere jarduerak ezberdinen baitan bultzatzen dituzten egitasmo eta ekintzak.

EN

MOVING ON FIRM GROUND

MONDRAGON UNIBERTSITATEA HAS HAD SIGNIFICANT GROWTH IN ENROLMENT, ACADEMIC OFFERINGS AND FACILITIES AND THEIR 2021-2024 STRATEGIC PLAN INCLUDES SUSTAINABLE DEVELOPMENT GOALS FOR ITS LONG TERM SUSTAINABILITY.

In 2015 the UN published the 2030 Agenda for Sustainable Development, a 15 year action plan with sustainable development goals (SDGs) and 17 specific goals. Those goals, expressed in the 2000-2004 plan, are also part of Mondragon Unibertsitate's 2021-2024 strategic plan. Being a cooperative and Basque speaking institution, it has always embraced many of the SDGs, including quality education, gender equality, decent work and economic growth, and peace and justice. The university has close ties to business and new degree programmes, including DUAL ones, and is growing an educational model based in gender equity where innovation is a core goal. After a 2020-2021 campus SDG survey, departments set their own goals and made development plans and working groups to define indicators and implement plans. They shared best practices and the synergies led to new goals and initiatives.

Hand in hand with University Strategy

The 2021-2024 Strategic Plan aims to extend the SDGs with accessible clean energy, responsible production and consumption projects for reducing inequality and improving health and well-being. *Ekitatea Bultzatzen* and *Bekabide* aim to help families and students in need and “MUCS-Circular and Sustainable Campus” is a three year accessible clean energy project. Healthy University and the Sports and Culture Service deal with health and well-being. The latter also organises activities like mindfulness and anti-smoking activities.

Local Involvement

Accessible clean energy, clean water and sewage, responsible production and consumption and climate positive action SDGs are

being addressed. The Upper Polytechnic School has several energy saving programmes using renewable energy sources. The Business School has installed water saving fixtures, special lighting and is using renewable energy. In Oñati they have joined a Cegasa's plan that reuses water for heating, cutting gas costs and energy use. The expanded waste management includes selective recycling and second use. Green mobility plans cut energy use with bicycles and special parking areas for shared cars. And the School of Humanities and Educational Sciences is promoting sustainable building. Paper use has been reduced by using more digital documents and having all new printers use cards. Reactions have been positive and the plan is being implemented all over campus. And the Basque Culinary Center is embracing the transformation by using hybrid vehicles for visitors. Mondragon Unibertsitatea is striving for long term environmental action by using glass water bottles and reusable bamboo containers for merchandising and stressing recycled materials.

Well-being is not Negotiable

One pillar of the SDGs very close to Mondragon Unibertsitatea is ensuring personal well-being every step down the path to excellence. Vending machines have healthy products and restaurants serve vegetarian food. The Basque Culinary Center has developed healthy eating guides and provided 1000 meals with Cáritas for the zero hunger SDG.

For the gender equality SDG, equality plans have been developed and commissions have been created and there are many initiatives to draw women to STEM areas.

Lastly, there are campus wide activities for promoting the use of Basque to address the Sustainable Cities and Communities SDG.

Garapen jasangarriko helburuen betetzea eta legeztatzea

Marta Arézaga CEO & Founder Firstlehen Strategy & Sustainability Council Advisor. Enpresa Saria eta AED Zuzentaraua 2021



«Gure mundua eraldatu» da Agenda 2030en leloa, nazioarteko komunitatearen Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak 2016-2030 aldian banatzen dituen nazioarteko agendaren leloa alegia, garapen jasangarria eta berdintasunezkoa bultzatzeko.

GJHak Milurtekoko Garapen Helburuen oinordekoak dira. Helburu horiek 2000. urtean sinatu zituen nazioarteko komunitateak, eta 2015. urtean denbora-muga ezarri. Asmo handiagokoak izan arren, garapen desberdina izan dezakete, legediak babestu egiten baititu, zehatz-mehatz gizartearen, ingurumenaren eta erakundearen gobernanzaren ikuspegitik. Eta hau urrats handia da, goi bilera ezberdinetan (Glasgow-koa adibidez) eztabaidatutakoa alde batera utzita.

Baliabide naturalen kudeaketa jasangarria (GJH 6, 7, 12, 13, 14 eta 15) hainbat instantziek arautzen dute. 2050erako gure ekonomia deskarbonizatzea behartzen duten akordioak nabarmendu behar dira hauen artean, helburu garrantzitsuak bilatzen dituzten paketeekin besteak beste. Horien artean aurkitzen dugu Taxonomia Berdea, hau da, «Berde» deituko diren jardueren zerrenda, eta horregatik finantzazio publikoaren xede bilakatzen ari dira. Deskarbonizazioak hainbat alor jorratzen ditu, hala nola Banketxeak (sistema iragazteaz arduratzen dena), Automozioa, Energia, Elikadura eta Finantza-keta. Ondorioz, etxeko ekonomietan ere eragin izugarria izango du.

Erakundearen gobernantzak (16. GJH) herrialde ezberdinetako legedietan aniztasuna eskatzen du, izan generoarena, jatorriarena, prestakuntzarena edo etniarena. Balore Merkatuaren Batzorde Nazio-

«Gure mundua eraldatu» da Agenda 2030en leloa, nazioarteko komunitatearen Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak 2016-2030 aldian banatzen dituen nazioarteko agendaren leloa alegia, garapen jasangarria eta berdintasunezkoa bultzatzeko.

nalak 2020ko uztaileko Gomendioan enpresei exijitzen die gutxienez emakumezkoen % 40ko presentzia izatea beraien administrazio-kontseiluetan, edo bestelakoek etnia aniztasuna. Horrez gain, erakundeentzat gardentasuna gero eta gehiago eskatzeak gai fiskalak, barne-funtzionamenduko arauak, kode etikoak eta horiek erakunde arautzaileei jakinarazi beharra biltzen ditu. Erakunde parte-hartzaileagoak, stakeholder-ekin elkarriketa eraginkorra dutenak eta haien interesei erantzuten diotenak, zehazki, eta horietako

batzuk beraien erabaki-organoetan integratzen dituztenak (Kontseiluak, Patronatuak, Batzordeak, Aholkulariak). GJHak lortzeko propio egindako 17 GJHen aliantzak giltzarriak dira. Unibertsitatearekin garatzen diren lankidetzak publiko-pribatuez ari gara hemen. Aukera zabala dago, eta finantza-keta Bruselatik babesten da.

Pobrezia eta gosea desagerraraztea (GJH 1 eta 2) gako direla abiapuntutzat hartuta, GJHen betearaztea nola sustatzen den sakonduko dugu. Argi dago kalitate handiagoko enplegua sortzeko politikak (eta horien ondoriozko legeria) funtsezkoak direla 4, 5, 8 eta 10. GJHak lortzeko. Gainera, ekintza horiek Berrikuntzarekin lotzen baditugu (iraunkortasuna eskatzen du, besterik ez), etorkizun berri bat izango dugu erronkei aurre egiteko.

Alderdi soziala gero eta pisu handiagoa hartzen ari da inbertsio iraunkorrean. Europar Batasuna bera Gizarte Taxonomia lantzen ari da, eta hainbat alderdi ezartzen ditu horretarako, besteak beste enplegu-baldintza duinak, komunitatean duen eragin positiboa, bizi-maila hobetuko duten zerbitzu eta produktu etarako sarbidea. Ingurumenaren arloak aldiz metrika konplexuagoa du, eta, zalantzarik gabe, alderdi horiek betetzea kontuan hartuko dute legegile eta merkatuek, finantza-keta publikoa eta pribatua uztartuz. Onura ukiezin gain (ospea), metrikak eta finantza-kontabilitatea ere tangibilizatu nahi dira (jasangarria ez izatearen kostua Galera eta Irabazien Balantze eta Kontuetara eramanda).

Eta, gainera, Administrazio Kontseiluak dira arlo horretako arduradunak eta bermatzaileak. Besterik ez.



“Unibertsitatearen eraginkortasuna handitu nahi dugu, eta haren ingurumen-aztarna murriztu”

Joan Manuel Fernández.

Ekonomia Zirkularra eta Industria Jasangarritasuna taldeko koordinatzaile eta ikertzailea

JOAN MANUEL FERNÁNDEZ GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO MONDRAGON UNIBERTSITATEKO INGURUMENAREKIKO JASANGARRITASUNA AZTERTZEN ARI DEN IKERBASQUE RESEARCHFELLOWBAT DA. GARATZEN ARI DEN PROIEKTUAK CAMPUSAREN KUDEAKETAREN EFIZIENTZIA HOBETZE A DU HELBURU, KARBON NEUTRALITASUNA SUSTATUZ ETA 2030 GJH-TAN INPAKTU POSITIBOA BILATUZ.

Jasangarritasunaren kudeaketak gero eta kezka handiagoa eragiten du erakundeetan, ekonomia zirkularren eta garapen iraunkorren lotutako lege eskakizunei eta gizarte eskaerei aktiboki erantzutea beharrezkoa baita. Joan Manuel Fernández Goi Eskola Politeknikoko ikertzailearekin izan gara Mondragon Unibertsitatea arlo honetan izaten ari den ibilbideari buruz hitz egiteko, eta gaur egun etorkizunera begira garatzen ari diren proiektuak erreparatzeko.



Mondragon Unibertsitatera iritsi zinenean ibilbide luzeazenuen egina jasangarritasunaren arloan. Hala da. Doktore tesia (2010-2014) Bartzelonan egin nuen (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa); eta, ondoren, Manchesterreko Unibertsitateko Industria Sistema Iraunkorren Taldean sartu nintzen doktoratu ondoko ikertzaile gisa (2015-2018). Beraz, ia 10 urte etxetik kanpo eman eta gero, Euskadira itzultzeko aukera profesionalak bilatzen hasi nintzen. Nire curriculuma Goi Eskola Politeknikora bidaltzea erabaki nuen eta aldi berean Ikerbasque Research Fellowsera aurkeztu nintzen. Nire zorionerako, bi aukerak aurrera irten ziren, eta 2019ko urtarrilean nire ibilbidea hasi nuen Arrasaten.

Zerk deitu zizun gehien atentzioa? Deigarriena unibertsitateak industriarekiko duen hurbiltasuna izan zen, nire ikerketa batez ere jasangarritasun industrialean oinarritzen baita. Nire ikerketa aplikatua egitea interesatzen zait (nahiz eta funtsezko ikerketan ere oinarritu), eta ikusi nuen teknologian eta ekintzailetzan unibertsitatea oso ondo kokatuta zegoela. Hala ere, jasangarritasunaren kudeaketa eta ikerketaren arloan bidea egiteko zegoen. Beraz, proiektu praktikoa bat garatzea interesgarria izan zitekeela pentsatu genuen, Mondragon Unibertsitatean zuzenean auzolandegi gisa ezarriko zena.

Eta zein da garatzen zabilzaten proiektua? Ikerketa-talde gisa dugun eraginkortasuna baliabideen erabilerean

eraginkortasunari eta errendimendu ekonomikoari dagokionez enpresen hobekuntza sustatzea da, ingurumenean eta gizartearen eragin negatiborikizana gabe, eta posible bada, inpaktu garbi positiboak sortuz. Hala ere, interesgarria iruditu zitzaigun Mondragon Unibertsitatean jartzea fokua enprekin erabiltzen ditugun tresnak ezartzeko probaleku eta eremu erreal gisa.

Unibertsitateko campus ezberdinak hondakinak eta ingurumenarekiko inpaktu negatiboak sortzeko iturri garrantzitsuak dira, baliabide ugari (materialak, energia, ura) behar baitira eskola-jarduerak, I+T jarduerak edo administrazio-jarduerak garatu ahal izateko, besteak beste.

Beraz, probaleku oso garrantzitsua iruditzen zaigu unibertsitatea, gure lan-arloan gure ikerketa-jarduera praktikan jartzeko aukera ematen baitugu.

Horretarako fakultate bakoitzeko dekanoen laguntza izan dugu, eta Goi Eskola Politeknikoaren aurrekaria, ingurumen-kudeaketako ISO14001 ziurtagiria lortzeko lana alegia, baliatu genuen. Horrela, doktore tesi bati lotutako proiektu bat garatzen hasi ginen, Mondragon Unibertsitatea: Campus Zirkular eta Jasangarria, izendatu duguna. Proiektu horren helburu nagusia da ekonomia zirkularreko estrategiak identifikatu, ebaluatu, lehenetsi, hedatu eta monitorizatzeko metodologia bat ezartzea, campusetako baliabideen kudeaketan eraginkortasuna hobetzeko eta 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) betetzean laguntzeko. Adibidez, kontsumo materialak eta

energia murrizteko estrategiak ebaluatzen gabiltza.

Ekonomia Zirkularra eta Industria Iraunkortasuna taldea ari da proiektua koordinatzen, unibertsitateko fakultate guztietako lantaldeen laguntzarekin.

“

“Campuseko baliabideen kudeaketa jasangarriko ekonomia zirkularreko berrikuntzak identifikatu eta ezartzeko gai izan behar gara”.

Zentzu honetan neurri konkreturen bat aplikatu duzue?

Lehenik eta behin, aurretiazko azterketa bat egin genuen Goi Eskola Politeknikoan, eta karbono-aztarna balioetsi genuen, CO₂ isurien iturri nagusiak identifikatuz. Emaizak irakasle, ikertzaile eta AZLkoekin partekatu genituen, barne dinamika ezberdinen bitartez. Horietan, esku hartzeko lau arlotan inplementatzeko irtenbideak eztabaidatu genituen: erosketak (erosketa jasangarrien protokoloaren garapena), energia (argitzapena LEDera aldatu eta energia berriztagarrien erabilera), hondakinak banatzeko enpresak eta langileak bereiztea (inkestak), eta langileak banatzea. Oso esperientzia aberasgarria izan zen, eta gaur egun hasierako diagnostiko hori errepikatzen gabiltza unibertsitateko gainerako fakultateetan: Enpresagintza, Gastronomía Zientzia eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzietan.

Proiektua martxan jarri zenetik aurrerapausoak eman direla argi dago. Eboluzio esanguratsurik nabaritu duzue? Hasiera batean, Goi Eskola Politeknikoko ingurumen-kudeaketako taldeak Ekoscan ziurtagiriaren esparruan Iturripe, Uribarri eta Garaia eraikinetarako bilduta zituen datuak erabili genituen; beraz, esan behar dugu hutsetik ez garela abiatu. Hortik aurrera, proba-pilotoa martxan jarri genuenetik, urtebetean ikusi dugu datuak eraginkortasunez bil-



tzeko eta hauek ondoren aztertzeko garrantzitsua dela fakultate bakoitzak ekintza-unitate bat osatzea. Beraz, gaur egun, fakultate guztientzat amankomuna den datu-bilketarako eta jardunbide egokietarako formulario estandar bat diseinatzeko prozesuan gaude. Bertan azterketa-eremu berriak gehitzen gabiltza. Esate baterako, campus bakoitzeko mugikortasunaren kudeaketa orain arte ez da ingurumen-ikuspegitik aztertu. Garrantzitsua da erregai fosilen kontsumoa eta horien emisio kutsatzaileak murrizteko mugikortasun jasangarriko planak eta ekintzak diseinatu eta sustatzea.

Epe motzerako zeintzuk dira helburuak? Epe motzean funtsezko hiru helburu ditugu: i) Datuak biltzeko sistema amankomun bat ezartzea, oinarritzkoa baita kontsumoak eta inpaktuak kuantifikatu eta ekonomia zirkularren hobekuntzak ebaluatzeko; ii) Mondragon Unibertsitateko campus eta fakultateen egungo jasangarritasunaren diagnostikoagaratzea, esku hartzeko arlo estrategikoak identifikatuz; eta iii) ekonomia zirkularreko proiektu piloto batzuk aztertu eta inplementatzen hastea, karbono-aztarna murriztu eta 2030erako GJHak betetzen lagunduz.

“

Campus bakoitzeko mugikortasunaren kudeaketa ez da aztertu orain arte”.

Sukaldaritzan inklusibitatea sustatu

GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO SOFTWAREAREN ETA SISTEMEN INGENIARITZAKO IKERKETA TALDEAK ETA DISEINU BERRIKUNTZA ZENTROAK LANKIDETZAN JARDUN DUTE MONDRAGON COMPONENTES-EK IKUSPEGI MURRITZUA DUTEN PERTSONENTZAKO DISEINATUTAKO BITROZERAMIKA BATEN EREDUAN



Kitchen Eye intuiziozko funtzionamendua du.

Goi Eskola Politeknikoa | Mondragon Componentes-ek *Kitchen Eye* bitrozeramika-eredua garatu du, itsuei edo ikuspegi murrizta dutenei etxean autonomia handiagoa emateko helburuarekin. Prestazio eta prezio eskuragarriko bitrozeramika eredu estandar baten garapenean digitalizazioa eta konpromiso soziala bateratzeko erronkari erantzunez, Mondragon Componentes-ek ahotsaren aldeko apustua egin zuen bere produktuaren komunikazio elementu gisa. Aplikazio mugikor baten edo ahots-laguntzaile baten bidez erabil daitekeen indukzio-sukalde bat garatu da, erabiltzaileak bitrozeramikari zenbait agindu ematea ahalbidetuko duena, piztetik edo itzaltzetik hasi eta tenperatura aldatzeraino. Gainera, plakak ahots pro-

pioa du, egiten zaizkion galderei erantzuteko ahalmena dauka.

Gizarteratzearen alde elkar-lanean

Bitrozeramikaren diseinua MONDRAGON Korporazioko eta ONCEko adituen eta Mondragon Unibertsitatearen arteko lankidetzatik sortu da, Goi Eskola Politeknikoko bi ikerketa-taldek egindako lanari esker. Softwarearen eta Sistemen Ingeniaritzako taldeak azpiegitu-

Kitchen Eye bitrozeramikak itsuei edo ikuspegi murrizta dutenei etxean autonomia handiagoa emango die

ra funtzionala garatu du elkar-eraginen datuak biltegitratzeko eta bistartzeko, bai eta softwarearen eguneratzeak automatizatzeko ere. Sistemak hala eskatzen duenean, urrutitik aktibatu ahal izango da. Bestalde, Diseinu Berrikuntza Zentroko ikerketa-taldeak prototipoaren irisgarritasunari buruzko azterlan bat egin du, azken produktuak erabiltzaile guztien inklusioa bermatu dezan. Gainera, proiektuak ONCEren Tifloteknologia eta Berrikuntza Zentroaren, Stirling Zentroaren, Eikaren, Copreciren, Fagor Elektronikaren, Sareteknikaren eta Euskadiko Etxeko Klusterraren (Acede) partehartzea izan du. Lankidetzaren horren azken emaitza produktu guztiz berritzailea da, sukaldaritzaren sektorea iraultzeko merkaturatu dena.

Game of Traders

ICIAR ALONSO, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO MYGADE ENPRESAKO ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUKO IKASLEA IZAN ZEN GARAILE GAME OF TRADERS IZENEKO LEHIAKETAN. BANKINTERREK ANTOLATUTAKO INBERTSIO-LEHIAKETAREN BOSGARREN EDIZIOA IZAN DA



Iciar Alonso, Game of Traders-eko irabazlea.

Enpresagintza Fakultatea | Iciar Alonsok, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduko ikasleak (Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateko MyGADE), irabazi du Bankinterreko Game of Traders inbertsio lehiaketaren 5. edizioa. Edizio honetan 80 unibertsitate eta unibertsitate zentrok hartu dute parte.

Zaletasun bat baino gehiago

Iciar Alonsok azaltzen duenez asko gustatzen zaizkio burtsarekin zerikusia duten gaiak, eta azpimarratzen duenez "Aitor Ovi dok, unibertsitateko burtsako gaiez arduratzen den irakasleak, lehiaketa honetan parte hartzea animatu gintuen guztiok, eta nik, gai hau gustuko dudanez, izena eman nuen".

Bestalde, mota honetako jarduerak balioan jarri nahi ditu Alonsok: "Askok gustatu zait parte hartzea

interesatzen zaidan inbertsio-mundu honi buruz gehiago ikasi ahal izateko". Esan beharra dago lehiaketak exijentzia maila altua eskatzen duela. Espainiako hainbat unibertsitateko 900 pertsona inguru elkartzeko baitira bertan, proiektu ezberdinak azalduz.

Iciarrek sari bat lortu du Bankinterren eskutik, baina esan digu berarentzat saririk garrantzitsuenak Bankinterren praktika interesgarriak lortzea izan dela.

Espainiako hainbat unibertsitateko 900 pertsona inguru elkartzeko baitira bertan, proiektu ezberdinak azalduz."

Esperientzia kooperatiboak partekatzeko bilkura

KOOPFABRIKAK ANTOLATUTA, ARANTZULAB-EN BILDU DIRA KATALUNIAK ETA EUSKAL HERRITIK ETORRITAKO EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA ETA EKINTZAILETZA SOZIALA SUSTATZEA HELBURU DUTEN ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIAK.

Humanitate eta Hezkuntza zientzien Fakultatea | Otsailaren 18an, *Lurraldeak eta kooperatibak*; *Katalunia eta Euskal Herriko esperientziak* jardunaldia antolatu zuen KoopFabrikak Arantzazun, Katalunian azken urteetan abian jarritako politika publiko berritzaileak ezagutu eta Euskal Herrian logika horien sustapenerako eredu propioen garapenez hausnartzeko. Bilkuran parte hartu zuen Josep Vidal Generalitateko Ekonomia Sozialeko zuzendari nagusiak.

Katalunia eta Euskal Herria

Azken urteotan, Euskal Herriko lurralde ezberdinetan kooperatibak eta horiek batzen dituzten sare zein talde ugari sortzen ari dira. Katalunian, bestalde, 2015. urtean, Generalitateak mugimendu kooperatiboarekin elkarlanean abian jarritako politika publiko berritzaileak emaitza interesgarriak ematen ari dira, eraldaketa sozialaren, lurralde burujabetzaren eta loratze kooperatibo berri baten bidean.

KoopFabrikan parte hartu zuten, beste batzuren artean, LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak eta Olatukoop Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea Sareak.



Arantzazulab-en egin zen jardunaldia.

Portuko aktibitatea 2022an

BUSINESS DATA ANALYTICS (BDATA) GRADUKO IKASLEEK BILBOKO PORTUAN 2022AN AURREIKUSTEN DEN AKTIBITATEA PUBLIKATU DUTE



Business Data Analytics graduko ikasleak Bilboko portuan.

Enpresagintza Fakultatea | Abian da Mondragon Unibertsitateak Zorrotzaurreko campusean ematen duen Business Data Analytics graduko ikasleen hirugarren promozioa. Ikasketa prozesuen aurre egin behar duten bigarren erronkan, 45 ikasleek Bilboko Portuak sustatuko lan bati egin dio aurre, 2022an portuak izango duen trafikoaren aurreikuspena egitea, herrialde ezberdinen ikuspuntutik. Horretarako, Portu Agintaritzak azken hamabost urteetako datu estatistikoak eman dizkie, eta herrialde bakoitzeko adierazle makroak erabiltzeko aukera izan dute.

Ikasleak taldeetan bildu ziren, eta talde bakoitzari Bilboko portuarekin harreman komertzial handia duen herrialde bat esleitu zitzaion. Egungo egoera ulertzetik abiatuta, ikasleek beren ezagutza analitikoak erabili zituzten 2022an harreman horrek

izango duen bilakaeraren iragarpenak egiteko.

Datu garrantzitsuen bila

Egindako lan guztiarekin, datu garrantzitsuen aurkitu dituzte, besteak beste Bilboko portua dela Erresuma Batuak Iberiar penintsulan itsasoz sartzeko duen ate nagusia, edo lehorreko konexio apartak dituen portua dela, eta edozein ontzi mota jasotzeko adina sakonera duela.

“Portu-azpiegitura datu-sortzaile handia da, eta analitikaren esparruan balio handiko proiektuak garatzeko aukera handiak ditu. Guzti horregatik, eskerrak eman nahi dizkiogu Portuari laguntza eta prestutasunagatik, eta etorkizunean lankidetzari hori errepikatzea espero dugu», nabarmendu dute Business Data Analytics Graduko arduradunek.

Automatizazioarekin aurrera egin

Goi Eskola Politeknikoa | LAY2FORM proiektuak metalez eta konposite termoplastikoz osatutako laminatu hibridoak fabrikaziorako prozesu aurreratu bat garatzen dihardu, automozioa bezalako sektoreen dinamizazioa eta lehiakortasuna areagotzeko. Prentsa, robot eta bestelako makinaren automatizaziotik hasi eta molde barruan pieza hibridoak fabrikatzerakoan gertatzen diren fenomeno fisiko desberdinak aztertzen dira bertan. Lau dimentsioaldi berean lan egiteko, hau da, Materialak, Prozesuak, Sistemak eta Produktuen Ingeniaritza.

Proiektua Goi Eskola Politeknikoa Fagor Arrasate kooperatibarekin batera ikerketa kolaboratiboa egiteko duen hitzarmenaren

baitan kokatzen da. Zenbait urtetako elkarlanari jarraiki, Polimero eta Konpositeen Teknologia lantzen dituen ikerketa taldeak ere mota honetako proiektuetan ekarpenak egiten ditu.

Elkarlana oinarri

LAY2FORM proiektua 2017ko urrian jarri zen martxan, eta 2022ko martxoan bukatu da, lau urte t'erdi hartuz bere osotasunean. Denbora tarte honetan, Goi Eskola Politeknikoa eta Fagor Arrasatez gain, *partner* lokal eta globalak aritu dira elkarlanean. Hauen artean aurkitzen dira Mondragon Assembly, Treelogic, Mecasonic eta Aimen; Portugalgo Inegi eta Inapal, Frantziako Recoll eta Esi, eta Belgikako V2i.

LAY2FORMeko diziplina anitzeko bazkideen osagarritasuna lau dimentsioetan lan egiteko erabili da; materialen, prozesuen, sistemen eta produktuen ingeniaritzan.



Elkarlanean ari da garatzen proiektua.

Ekipamendu teknologikoak enpresentzat

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK DEEP DIVE JARDUNALDIAK ANTOLATU DITU, UNIBERTSITATEAK DITUEN EKIPAMENDUA ENPRESEI EZAGUTARAZTEKO. TOPAKETAK SPRIK SUSTATUTAKO BDIH (BASQUE DIGITAL INNOVATION HUB) INIZIATIBAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA.



Deep Dive jardunaldia Goi Eskola Politeknikoan.

Goi Eskola Politeknikoa | Azaroa eta abendua bitartean zenbait Immersión Deep Dive jardunaldi antolatu ziren Goi Eskola Politeknikoan. Jardunaldiak SPRIK sustatutako BDIH (Basque Digital Innovation Hub) ekimenaren parte dira, eta sektore ezberdinetako enpresei unibertsitateak dituen ekipamendu teknologikoak eta berrikuntza gaitasunak ezagutzeko aukera eskaintzen die. Sektore hauek energia elektrikoa eta sare digitalak, gailu medikoak eta osasun digitala eta forja eta material berriak izan dira, alor hauetan elkarlanerako aukerak irekiz.

Energia elektrikoa eta sare digitalak

Sektore elektrikoarekin lotutako enpresetan lan egiten duten pertsonen zuzendutako saioak Mondragon Unibertsitateko eta Ikerlaneko laborategi eta instalazioetara egindako bisitak jaso ditu, hurrengo aktiboak erakutsiz:

- Mondragon Unibertsitatean Tentsio-ertaineko laborategia eta Tentsio-baxuko korrante zuzeneko mikrosarea.
- Ikerlanen Smart-Storage laborategia, Smart Grids/Smart Building eta Potentzia Elektronika, Sareen kontrolagarritasuna eta segurtasunahobetzeko SW eta Biltegiatzea sare elektrikoetan integratzeko aplikazioak.

Gailu medikoak eta osasun digitala

Saio hau mediku-gailuak fabrikatzen dituzten euskal enpresei zuzenduta egon zen, eta bertan hurrengoak ezagutzeko aukera izan zituzten:

- Mondragon Unibertsitatean Gai-nazalen funtzionalizazio-unitatea laser femtosegundo bidez eta Era-biltzaile laborategia, Diseinu inklusiboa eta eskuragarritasuna.
- CIC nanoGUNE n Elektrosinning bidez fabrikatutako scaffoldak eta konpositeak.
- Tecnalian estimulazioarekin eta begizta itxian erregistratutako neuromodulazio-plataforma.
- Vicomtechen Osasun Digitaleko Aplikazioetarako SDK eta Irudi Medikoko Aplikazioetarako SDK.

Forja eta material berriak

Enpresa eraldatzaile ezberdinetako kideei zuzendutako jardunaldietan aztertutakoak hurrengoak izan ziren:

- Forjaketa-altzairuak, arintzeko estrategia betetzeko, eta beroko forjaketa-prozesuen garapen birtuala.
- Hotzeko forja-osagaien diseinua optimizatzea/baliozkotzea.
- Material anitzeko egituretarako sarrera: forjaketa birakariko prozesu aurreratua, lehengaiak aurrezteko eta osagaiak arintzeko.
- Osagaiak arintzea.
- Forja-prozesuen jasagarritasuna eta eraginkortasun energetikoa.

Komunikazio enpresak eta unibertsitatea elkarlanean

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA GRADUKO DUAL IBILBIDEKO IKASLEAK HASI DIRA LANEAN EUSKAL HERRIKO KOMUNIKAZIO AGENTZIETAN EDO BESTE ARLO BATZUETAKO ENPRESETAKO KOMUNIKAZIO MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO DEPARTAMENTUETAN.



Jone Markuleta ikaslea, Emun erakunde lanean.

Humanitate eta Hezkuntza zientzien Fakultatea

| Ikasturte honetan, Duala eredu jarri du abian Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazio graduak. Aukera horrekin indartu egiten da Mondragon Unibertsitateak berezko duen ezaugarri nagusietako bat: enpresa eta unibertsitatearen arteko harreman handia.

Prestakuntza Duala osagarritasun printzipioan oinarritzen da; inguru akademikoan ikastea eta ingurune profesionalean ikastea osagarritzat hartzen dira. Dualaren helburu nagusia da lanaren bidez ikastea, eta ez ikasten ari dela lan egitea. Hiru alderdiek (ikasleak, enpresak eta unibertsitateak) sinatutako hitzarmen baten oinarrituko da Dual ereduaren ezarri den harremana.

Komunikazio gradua bi ziklotan dago antolatuta. Lehenengo ziklotan bi urteak baliatzen dira komunikazio mundura hurbiltzeko eta munduzabal honetako hainbat esparru gertuagotik ezagutzeko: Internet, irratia, telebista, zinema, komunikazio idatzia... Bigarren ziklotan, ostera, ibilbidea aukeratzen da. Graduak bi ibilbide

eskaintzen ditu eta horietako bat hautatu behar du ikasleak: Ikus-entzunezko sormena edo Komunikazio digitala. Bigarren horretan, Komunikazio digitalean, inplementatu da aurtun eredu Duala.

Ikasleak lanbidean murgilduz

Beste batzuen artean, hiru baldintza bete behar ditu gradu batek dual zigilua lortzeko: ordaindutako Dual eredu izatea, gutxienezko ordu kopuru bat modalitate Dualean (Ikus-entzunezko Komunikazio graduaren kasuan, 1.064 ordu bi urteetan zehar enpresan) eta praktikak eta Gradu Bukaerako Lana (GBL) Dualaren baitan egitea.

Honako enpresa hauetan ari dira lanean Komunikazioko ikasleak: AZK komunikazio taldea, Sorland komunikazio agentzia, Bizipoz Nagusien Ahalduntzea Sustatzen Duen Kooperatiba, Mundukide Fundazioa, Emun Euskara eta berrikuntza soziala, Manahmana, Laboral Kutxa eta PUNTUeus Fundazioa.

Mondragon Unibertsitateak 11 gradu eta 7 master eskaintzen ditu modalitate dualean.

Banaketa adimentsu eta jasangarrirako soluzioak

IRUNGO LABORATEGIKO LEINNER TALDE BATEK ERE EZAGUTZA BIDERATU DU KOIKI ENPRESAREKIN BATERA BANAKETA JASANGARRIA GIZARTERATZEAREN ERRONKA ESTRATEGIKOEI ERANTZUTEKO

Enpresagintza Fakultatea | Gizarte Berrikuntzari eskainitako hilabetearen barruan, Mondragon TeamAcademyren Irungo laborategiak, Emplea Fundazioko taldearekin eta Koiki enpresarekin batera, jardunaldi bat antolatu zuen azken miliako banaketaren eta gizarteratzearen inguruko problematika ulertu eta honi irtenbide posibleak bilatzeko.

LEINNeko laborategietako 70 ekintzailek bertatik bertara ezagutu zuten Koiki enpresaren kasua. Gaur egun Espainiako 18 probintzian dago, 60 mikro-zentro aktibo ditu auzo mailan eta beste 100 martxan jartzeko zain daude. Guzti



go laborategiko LEINNers-ak.

horiek CO2rik gabeko ibilbideak sortzen dituzte gizarte bazterketa arriskuan dauden kolektiboek enplegu jasangarria eskainiz.

Enpresa eta honek garatzen dituen soluzioak sakonago ezagutu ondoren, jarduera-eremu eta merkatu berriak ulertzearekin lotutako bi erronka estrategiko planteatu ziren (tokiko merkataritzaren lehiakortasuna hobetzea eta mendekotasuna duten pertsonentzako zerbitzu berriak sortzea).

Erronkak ebazteko talde mistoak

Leinnerrek, lantalde mistoetan antolatuta (lab eta kurtso desberdinetakoak), ahalik eta irtenbiderik onenak planteatzen saiatu ziren, onenak 500 eurokoa saria eskuratuz, enpresari soluzioa ezartzeko aukera luzatuz.

Talde irabazlea Mirari de Omma (MTA Irun Lab), Carlo de Gamma (MTA Irun Lab) eta Pablo de Hagalazek (MTA Bilbao Lab) osatu zuten. Beraien proposamena Koiki sarea baliatuz ostalaritza establezimenduek baztertutako egoera onean dauden elikagaien banaketa sistema bat izan zen, sarean laguntzen duten app-en erabilera aprobetxatuz. Gainerako taldeek ere konponbide oso interesgarriak proposatu zituzten, hala nola hirugarren adineko pertsonen laguntzeko telefono-linea bat sortzea, edo oso ondo baloratutako zero kilometroko produktuak erosteko plataforma bat.

Eroski BCC Onenak 2021

BASQUE CULINARY CENTER Y EROSKI RECONOCEN LOS PROYECTOS REALIZADOS POR TRES ALUMNI, PONIENDO EN VALOR EL EMPRENDIZAJE Y EL TRABAJO DIARIO DE JÓVENES TALENTOS DEL SECTOR DE LA ALIMENTACIÓN Y LAS GASTRONOMÍA

Basque Culinary Center - Facultad de ciencias gastronómicas | Basque Culinary Center y Eroski, patrono de la facultad desde su fundación, han entregado conjuntamente los premios Eroski BCC Onenak 2021, en una ceremonia celebrada en las instalaciones de Basque Culinary Center.

Los premios han querido reconocer la labor emprendedora realizada por profesionales que han pasado por las aulas de la facultad, desarrollando proyectos que generan riqueza e impacto en su entorno y puedan ayudar a extremar la apuesta por la sostenibilidad, tanto medioambiental como local.

Reconocimiento a tres profesionales

Estos premios ponen en valor el trabajo conjunto realizado apostando por los jóvenes talentos como motor

de cambio del sector de la alimentación y la gastronomía, y en esta edición se han reconocido los proyectos de tres Alumni; Carlos Maldonado, Martina Puigvert y Joseba Lazkano.

El primero de ellos es Carlos Maldonado: chef del restaurante estrella Michelin "Raíces" en Talavera de la Reina (Toledo) conquistó el concurso televisivo "MasterChef" en 2015 y después cursó el Máster en Cocina, Técnica y Producto.

En segundo lugar, Martina Puigvert, graduada en Gastronomía y Artes Culinarias es la chef de "Les Cols en Olot" (Girona), con dos estrellas Michelin.

Por último, tenemos a Joseba Lazkano, director de la bodega Gaintza Txakolina en Getaria y egresado del Máster de Sumillería y Enomarketing.



Tres alumni fueron premiados.

Gaurko eta atzoko sukaldaritza

SEKTORE GASTRONOMIKOKO PROFESIONAL GAZTE TALDE BATEK BASQUE CULINARY CENTER-EKO NAZIOARTEKO KONTSEILUAK LIMAN DUELA HAMARKADA BAT ETORKIZUNEKO SUKALDARIEI IDATZITAKO GUTUNA EGUNERATU DU.



Sektoreko profesional-talde handi batek horri buruzko hausnarketa egiten du.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | 2021ean hamar urte bete ziren Basque Culinary Centerren Nazioarteko Aholku Batzordea eratu eta Liman etorkizuneko sukaldariei gutuna idatzi zietenetik. Hamarkada bat geroago, Gastronomía Zientzien Fakultateko ikasle eta egresatu talde batek gutun hura aztertu eta gaur egungo ikuspegiarekin aztertu dute. Carlos Casillasek, Lucía Curielek, Ane Galardik, Julián Oterok, Claudia Polok, Martina Puigvert, Javi Riverok eta Nabila Rodríguez, Basque Culinary Centerreko Kontseiluko kide den Gastón Curioaren konpainiarekin, espazio propioa izan zuten Dialogos Txiki jardunaldian, Fakultatearen hamargarren urteurrenaren barruan egindako jardueran.

Protagonistek ordu erdiko tartea izan zuten, eta ordu erdiko tarte horretan duela hamar urte Liman idatzitako gutuna erreparatu, eta gaur egungo ikuspegitik aztertu zuten.

Egungo ikuspegiarekin berrinterpretatzea

Lucía Curielek hartu zuen hitza lehenik, eta

azpimarratu zuen sektore gastronomikoa hainbat motatako profitez osatuta dagoela, sukaldaritzara mugatu gabe sektoreari bere osotasunean garrantzia emanez. Horrela, gastronomía sektoreko eragileen arteko lotura-iturri gisa aldarrikatzen da, ikuspegi osasungarri, iraunkor eta irisgarriarekin, epe luzera iraun ahal izateko.

Produktua gastronomiaren erregea da eta, zentzu horretan, Martina Puigvert, bertako eta sasoiko produktuaren erabilera goraiatu zuen, bere haurtzaroko pasarte bat gogoratuz. Era berean, bertako produktuaren erabilerak profesionalaren nortasunean eragina izan behar du, oso garrantzitsua baita bakoitzak bere inguruarekiko lotura sentitzea, gastronomía gainerako pertsonen egunerokotasunetik kanpo ez dagoela jakinda.

Era berean, Julian Oterok zientziak eta teknologiak gastronomía modernoan duten zeregina aldarrikatu zuen, ikerketa eta transferentziak ezinbestekoak baitira sektorearen iraunkortasuna bermatzeko eta kalitatez egiteko. Gainera, Oterok gaitzetsi egin zituen gero eta

profesionalizatuago dagoen sektore batean gerta daitezkeen jarrera ez oso etiko edo solidarioak, entzuleak norabide berean lan egitera animatuz.

Javi Riveroren parte-hartzea gremioan zentratu zen, batez ere, establezimendu bakoitzeko sukaldaritzaren taldeak osatzen dituzten pertsonen ongizatean, bai eta lan-karga horiek jasaten dituzten familien ongizatean ere. Horregatik, lan iraunkorra ahalbidetzearen garrantzia nabarmentzen du, belaunaldi berri honen iraultza izan behar duen zerbait.

Ane Galardik, berriz, gure komunitateen garapen sozioekonomikoan eragiteko gaitasuna

Gastronomia sektoreko eragileen arteko lotura-iturri gisa aldarrikatzen da, ikuspegi osasungarri, iraunkor eta irisgarriarekin, epe luzera iraun ahal izateko.

duten gizarte-eragile gisa definitu zuen profesional talde hori. Horregatik, gizartearen kontsumo-ohituretan eta, ondorioz, osasunean, ongizatean eta hezkuntzan eragiteko gai izan behar da.

Azkenik, Carlos Casillasek aldaketarako aukera gisa aurkeztu zuen agertoki berria, baina horretarako ezinbestekoa da sektoreko gainerako eragileekin indarrak biltzea, gastronomía sektorearen eraldaketa baieztatuko duten balio partekatu berriak aurkitzeko.

“Etorkizuneko sukaldariei gutuna”

Hausnarketa hori mahai gainean jarri zen Sukaldeko Elkarrizketen bertsio txiki batean, Euro-Toques, Mugaritz eta Basque Culinary Centerrek antolatutako eztabaida pizgarriekin eta hitzaldi inspiratzaileekin.

Gainera, gutuna Gastronomía liburuan ere argitaratu zen. Gaurko eta biharko sukaldaritzari buruzko elkarrizketak Basque Culinary Centerrek bere hamargarren urteurrena dela eta (2021) argitaratua.

Euskaltzaindiak urgazle izendatu ditu Eneko Bidegain eta Jon Sarasua

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IKERTZAILE ETA IRAKASLEAK DIRA URGAZLE IZENDATU BERRIAK.


Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Euskaltzaindiak urgazle izendatu ditu Eneko Bidegain eta Jon Sarasua Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaile eta irakasleak. Euskaltzaindiak lau urtean behin berritzen du euskaltzain urgazleen zerrenda. Euskaltzain urgazleak dira euskararen arloren batean nabarmendu eta Euskaltzaindiak bere lanean lagun diezaion izendatutako pertsonak. Oraingoan, 19 urgazle eta 26 ohorezko berri izendatu ditu Euskaltzaindiak.

Ibilbide luzeak

Eneko Bidegainek (Baiona, 1975) Euskal Ikasketak ikasi zituen Baionan, eta bere tesia Euskaltzaindiak argitaratu zion 2013an. Beste hainbat liburu ere baditu idatziak. Mondragon Unibertsitatean hasi aurretik, kazetari lanetan aritu zen 'Euskaldunon Egunkaria'-n eta 'Berria' egunkarian. Horrez

gain, bertso munduan ere badabil, epaile lanetan bereziki. Egun, Bidegainek eskolak ematen ditu Ikusentzunezko Komunikazioa graduan eta ikertu egiten du Mondragon Unibertsitateko KoLaborategian, Gizarte Digitalerako Hezkuntza eta Komunikazioa Laborategian.

Jon Sarasuak (Aretxabaleta, 1966) Informazio zientzietan doktoradutza egin zuen EHU-n. Hainbat argitalpen egin ditu sozioekonomiaren, kulturgintzaren eta euskalgintzaren arloetan. Mondragon Unibertsitatean hasi aurretik kulturgintzan sortzaile lanetan ibili zen, eta erakundeak sustatzen. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean hainbat funtzio bete ditu kudeaketan, ikerketan eta irakasle lanetan. Azken zeregin honetan, hezkuntza nahiz komunikazio graduetan eta hainbat graduondotan aritu da irakasle. Kooperazio linguistikoaren lanetan ere ari da, Amerika eta Afrikako hainbat herrialdetan.



Eneko Bidegain eta Jon Sarasua Mondragon Unibertsitatean.

Alumni

Ekintzaitza jasangarria

ARITZ GARTZIAK ENPRESARITZA FAKULTATEKO IRUNGO CAMPUSEAN EGIN ZITUEN LIDERGO EKINTZAILEAREN ETA BERRIKUNTZAREN GRADUKO IKASKETAK. 2019AN, BERE BI BAZKIDEEKIN ELKARTU ZEN, ETA EKOMODO DENDA EKOLOGIKOA SORTU ZUEN. GAUR EGUN ZUZENDARI OROKORRA DA BERTAN.



Aritz Garcia 2021eko Gazte Enpresari Sari Nazionala jasotzean.

Enpresagintza Fakultatea | Nola gogoratzen dituzu leinurteak? Ze oroitza dituzu? LEINN graduko "Learning by doing" metodologia berritzaileari esker, nire ahalmenik handiena atera ahal izan nuen, bai arlo profesionalean, bai pertsonalean. Lau urtetan enpresa-munduak nola funtzionatzen duen jakin ahal izan dut, eta ingurunean eragin positiboa duten enpresa iraunkorrak sortzen eta gidatzen ikasi ahal izan dut, gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspegitik.

LEINN amaitu zenuenetik, zein izan da zure ibilbide profesionala? Graduko azken urtean EkoREC Taldean sartu nintzen, egunero 5.000.000 plastikozko botila birziklatzen dituen enpresabatean. Birziklatutako PET plastikozko hondakin horiek EKOMODO markarekin merkaturatzen ditugun diseinuzko osagarri bihurtzeko helburua du honek. 2019ko urrian, LEINN-en gradu amaierako proiektuarekin lan

egin nuen taldean sartu eta zortzi hilabetetara, nire bi bazkideekin EKOMODO konpainia sortu nuen. Material jasangarriekin egindako produktuak (plastikozko botilak, ehun-hondakinak, etab.) diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzen ditugu, egunerokoan erabiltzeko, hala nola motxilak, diru-zorroak, ordenagailu-zorroak edo koadernoak. Gaur egun EKOMODOko sortzaileetako bat eta zuzendari orokorra naiz. Lau pertsonako taldea zuzentzen dut, eta egunero lan egiten dugu planetan eta gizartean eragin positiboa sortzen jarraitzeko.

Duela gutxi sari bat jaso duzu, zein izan da? EKOMODOren proiektuari eta atzean dagoen talde osoari esker, 2021eko Enpresa Gazteen Sari Nazionala jaso dut, Konpromiso Soziala eta Iraunkortasuna kategorian, CEAJEren eskutik (Enpresari Gazteen Elkarte). Ekitaldian Felipe VI.a erregea eta Nadia Calviño Gobernuako presidenteordea izan ziren, beste agintari politiko, enpresaburu eta komunikabide batzuekin batera.

Ez dago aitzakiarik; mugitu beharra dugu

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO KIROL ZERBITZUAK AKTIBITATE FISIKOA HANDITZEKO AUKERA EZBERDINAK ESKAINTZEN DITU



Kirol Zerbitzuak baliabide berri ugari jarri ditu kirola modu egokian egiteko.

Kirola | Azken urteotan pertsonen bizimodua aldatu egin da, eta ondorioz denbora asko igarotzen dugu geldirik. Gure arbasoekin alderatuta oso gutxi mugitzen garela ukazina da, eta horrek ondorio lazarriak ditu gure ongizate fisiko, psikologiko eta sozialean, osasunean oro har. Munduko Osasun Erakundeak (OME) astean 150 eta 300 minutu bitarteko jarduerak fisiko moderatua gomendatzen du; eta hori, kasu askotan, ez dugu betetzen. Egunerokoan askotan egoten gara eserita, besteak beste, ikasten gaudenean, bulegoko lanean edota ohiko klase magistraletan. Oro har, bizimodu sedentarioa dugula onartzeko lehen pausoa eman badugu, azter ditzagun orain arazoari aurre egiteko aukera eta estrategiak.

Errealitateari egokitutako eskaintza

Egoera honen aurrean, badira betebeharren ondorioz jarduerak fisikoak egiteko nahikoa denbora ez dugula baieztatzen dutenak. Beraz, erronkari modu eraginkor eta osasuntsuan erantzuteko, denbora aldetik oso eskakizun txikia duen eta, era berean, gure mugimendu maila areagotzeko balio duen praktika bat aurkezten dugu: atsedenaldira aktiboak. Atsedenaldira aktiboak, pertsonen arteko harremanak giro egokian garatzeko aukeraz gain, gure eguneroko aktibitate maila handitzeko parada eskaintzen digute. Beraz, esan bezala, gure atsedenaldira aktiboak bihurtzeko helburuarekin, kirol zerbitzuan, kanpo

zein barne espazioetan jarduteko abagune ugari eskaintzen dizkizuegu: kirol material mailegua, entrenatzaile pertsonal zerbitzua, bizikleta alokairua, MUfit saioak, nordic walking ibilaldiak eta beste hainbat egitasmo. Gainera, udaberritik aurrera, atsedenaldira aktiboak egin ohi diren guneak sustatuko dira.

Mondragon Unibertsitateko kirol zerbitzuak argi utzi nahi du mugimendu maila handitu nahi duen pertsona orok kirol zerbitzuko kideengana jo dezakeela. Ez dago aitzakiarik, mugitu beharra dugu eta horretarako irtenbide ezin hobea da atsedenaldira aktiboak egitea.

Mugitu beharra dugu eta horretarako irtenbide ezin hobea da atsedenaldira aktiboak egitea

From Kurdistan to Arrasate

FARSHAD ABBASI HAD BEEN WORKING FOR MORE THAN TWO YEARS IN THE DEPARTMENT OF MECHANICAL ENGINEERING AND INDUSTRIAL PRODUCTION OF MONDRAGON UNIBERTSITATEA



Farshad Abbasi poses on the Iturripe campus.

GoiEskola Politeknikoa | How did you arrive in Mondragon Unibertsitatea?

After finishing my PhD in mechanical engineering, I applied for PostDoc positions. After being accepted in different ones, I decided to join Mondragon Unibertsitatea. Soon, I realized that not many universities in Spain have the facilities in terms of labs or machinery I found in Mondragon. This was very important in my first project where I collaborated with Tecnalia and Gestamp. Then I was involved in CAMBER European project, a big project with big factories covering a big range of the automotive value chain (Matrici, Fagor Arrasate and Volvo among others).

What is your feeling about the university right now? I can say that Mondragon Unibertsitatea is completely different. It is a young university and there is a clear cooperative culture. Another differentiating factor is the close collaboration with the industry. The organization has the potential to become a leader in this area, no doubt.

Did you enjoy your stage here? Of course. I think Basque Country is very special in terms of culture, language, infrastructures or quality of life, and obviously the beautiful landscape and welcoming people.

Arizmendiarrietaren

TXOKOA

Jose Maria Arizmendiarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak. Gogoeta liburuxka.

EUS

ES

“Heldutasunaren ezaugarria da eginkizun kolektiboan parte hartzea eta integratzea”

(Gogoetak 289)

“El signo de la madurez es la participación e integración en el quehacer colectivo”

(Reflexiones 289)

euspot XI.

EUSKARAZKO
SPOT
LEHIAKETA
2022

Aitzindaria
Euskal Herrian

euspot.eus



SPOT LEHIAKETA ZERGATIK LAN EGIN KOOPERATIBA BATEAN?

Sortu 30
segundoko
iragarkia,
gazteak
kooperatibismora
gerturatu eta
balioan jartzeko.

SARI NAGUSIAK

Spot onena: 1.000€

Publikoaren saria: 500€

Gazteen saria (18 urtetik beherakoak): 500€

Musika sinkronizazio onenaren saria: 300€

SARI GEHIGARRIAK

Mondragon Unibertsitateko ikasleen spot onena: 500€

Anzamediko ikasleen spot onena: 250€

EPEA
2022ko
maiatzak 19

OINARRIAK
euspot.eus

BADESLEA

 **CSCEEKKGK**

Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi
Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTAILEAK

BIZUMekin

ordaintzen baduzu,
FLOWa duzu

Lagunen arteko opari bat, taxi bat, sarrera batzuk...

LK Payrekin dirua bidali eta jaso dezakezu doan, mugikorretik mugikorrera, zure kontaktuen artean. Erraz, azkar eta seguru. Hau da, FLOW handiarekin.

Deskargatu LK Pay appa, Bizum aktibatzeko:



LK Pay



bizum




LABORAL
kutxa